



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

2019KO MAIATZAREN 30EKO  
OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO  
EL DÍA 30 DE MAYO DE 2019

1. Batarezintasunen Batzordearen irizpena, Euskadiren izeneko senatari izendatzeko hautagaiaren bateragarritasun-egoerari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena, eta, hala badagokio, senataria hautatzeko botazioa. [11\11\06\00\00001]

Irizpena onetsi da.

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de la candidata a senadora representante de Euskadi y votación, en su caso, para la elección de la senadora. [11\11\06\00\00001]

Se aprueba el dictamen.





2. (puntu berria) Bateriaezintasunen Batzordearen irizpena, Euskadiren izeneko senatari izendatzeko hautagaiaren bateragarritasun-egoerari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena, eta, hala badagokio, senataria hautatzeko botazioa. [11\11\06\00\00001]

Irizpena onetsi da eta Idurre Bideguren Gabantxo andrea izendatu da Euskadiren izeneko senatari.

2. (punto nuevo) Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de la candidata a senadora representante de Euskadi y votación, en su caso, para la elección de la senadora. [11\11\06\00\00001]

Se aprueba el dictamen y se designa a D.ª Idurre Bideguren Gabantxo senadora representante de Euskadi.





3. (deialdiko 2. puntua) Bateriaezintasunen Batzordearen irizpena, Alaitz Zabala Zarate legebiltzarkidearen bateragarritasun-egoeraren gainean. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\01\01\00\00083]

Irizpena onetsi da.

3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de la parlamentaria D.ª Alaitz Zabala Zarate. [11\01\01\00\00083]

Se aprueba el dictamen.





4. (deialdiko 3. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako lege-proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruz. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00033]

Aintzat hartzea ezetsi egin da.

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre medidas para hacer frente a la deslocalización de empresas. [11\09\02\02\00033]

Rechazada la toma en consideración.





5. (deialdiko 4. puntua) Mozioa, Eva Lopez de Arroyabe Saez de Maturana EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, despulazioari aurre egiteko neurriei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00135]

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

16/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrera proaktiboa mantendu dezala landaguneetako premia eta aldarrikapenen aurrean; defendatu dezala Nekazaritza Politika Erkide berriak diskriminazio positiboko eredu bat proposatzea landa garapenerako proiektu eta neurrietarako, desabantaila espezifikoak dituzten guneeetan eta desagertze-arriskuan dauden despopulatutako inguruetan ezartzekoa; eta defendatu ditzala egungo finantzaketa-portzentajeak.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala bultzatzen, foru aldundiekin batera eta ahalik eta azkarren, gure landaguneetako digitalizazio osoa azeleratuko duten neurriak, zeinek inguru horietan jarduera ekonomikoak eta enplegu-aukerak eta etorkizuna sustatzea ahalbidetuko duten.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egutegi legegilean aurreikusitako lege-proiektua bidal dezala, Landa Ingurunearen Garapenerako Legea aldatzekoa".

5. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Eva Lopez de Arroyabe Saez de Maturana, parlamentaria del grupo EH Bildu, sobre medidas para hacer frente a la despoblación. [11\11\03\00\00135]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

16/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener una postura proactiva respecto a las necesidades y reivindicaciones de las zonas rurales; a defender que la nueva Política Agraria Común proponga un modelo de discriminación positiva para proyectos y medidas de desarrollo rural a implantar en zonas con desventajas específicas y en aéreas despobladas con riesgo de desaparición; y a defender el mantenimiento de los porcentajes de financiación actuales.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir impulsando, junto con las diputaciones forales y en el plazo más breve posible, medidas que aceleren la completa digitalización de nuestras zonas rurales, de modo que permitan fomentar actividades económicas y oportunidades de empleo y futuro en sus entornos
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que le remita el proyecto de ley, previsto en el calendario legislativo, de modificación de la Ley de Desarrollo Rural".





**6. (deialdiko 5. puntua) Mozioa, Edurne García Larrimbe Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, turismo-ereduari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00036]**

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

17/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, lurralde historikoetan turismoaren arloan eskumena duten gainerako administrazioekin, gizarte-eragileekin eta inplikaturiko gizarte zibilarekin batera, arreta zentratu dezala turismoaren fenomenoaren egokiro planifikatzen eta eredu jasangarri eta antolatu bat lortzera bideratzen.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erakunde arteko lankidetzan sakondu dezala, erakargarri turistikoaren eta kultura-, kirol- eta bestelako ekitaldien multzo osoa bisitatzen gaituen turistarentzako eskaintza bakarrean sartzeko, halako moldez non lagunduko duen enplegua eta jarduera ekonomikoa Euskal Autonomia Erkidego osoan era orekatu eta banatzen sortzen.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala turismo-politikak garatzen turismo jasangarriaren jardunbideak bultzatzeko eta tokiko komunitatearentzat balioa sortzeko, errespetuzko turismo-eredu bat, kultura-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-aldetik jasangarria, bultzatzeko estrategia gisa.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala gizarte-eragileekin eta turismo-alorrekoekin batera lan egiten Euskadin turismoa garapen jasangarriaren helburuen arabera egokitzeko.
5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio dossier bat egin dezala erabilera turistikoko pisuen egoerari buruz, sektore honen eta bere eboluzioaren erradiografia kuantitatibo eta kualitatibo bat eginez, eta Legebiltzarrera igorri dezala".

**6. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Edurne García Larrimbe, parlamentaria del grupo Elkarrekin Podemos, sobre modelo turístico. [11\11\03\00\00036]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

17/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, junto con el resto de administraciones de los territorios históricos competentes en materia turística, agentes sociales y sociedad civil implicada, centre su atención en la planificación adecuada del fenómeno turístico y en dirigirlo hacia un modelo sostenible y ordenado.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que profundice en la colaboración interinstitucional con el fin de integrar el conjunto de atractivos turísticos y eventos culturales, deportivos y de otro tipo en una oferta única al turista que nos visita, de manera que contribuya a generar empleo y actividad económica de forma equilibrada y repartida en el conjunto de la Comunidad Autónoma vasca.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar desarrollando políticas turísticas que impulsen las prácticas de turismo sostenible y generen valor para la comunidad local como estrategia de impulso de un modelo turístico respetuoso y sostenible cultural, social, económica y medioambientalmente.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir trabajando conjuntamente con los agentes sociales y del sector turístico en la adaptación del turismo en Euskadi a los objetivos de desarrollo sostenible.
5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que elabore un dossier sobre la situación de los pisos de uso turístico, realizando una radiografía cuantitativa y cualitativa de este sector, así como de la evolución del mismo, y lo remita al Parlamento".





**7. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek egindako legez besteko proposamena, haurren kontrako sexu abusuak ikertzeko eta prebentziorako, egiarako eta erreparaziorako proposamenak burutzeko ponentzia bat sortzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00570]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

52/2019

"1. Legebiltzarreko osoko bilkurak adostu du Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean ponentzia bat osatzea ekimen hau onartu eta bi hilabeteko epean, zeinak, eremu judizialean preskribatutako sexu-abusuen biktima izandakoen testigantzatik eta egiatik abiatuta, gaian adituak diren eragileekin edo inplikaturako bestelako eragileekin bildu ostean, ikerlan bat argitaratuko baitu sei hilabeteko epean, honako helburu hauekin:

- Prebentziorako, detekzio goiztiarrerako, babeserako, berriz ez gertatzeko bermeak ezartzeko eta erreparaziorako elementuak identifikatzea; horretarako, adituen eta haurtzaro zein nerabezaroan sexu-abusuen biktima izan direnen ekarpenak hartuko dira erreferentziatzat.
- Duela urte gutxi arte eremu 'pribatuko' arazo puntualtzat jotzen zen arren, giza eskubideen urraketa larria den abusu horren gaineko egia erakuntzarako eta memoria kolektibo eta historikorako ekarpena egitea.
- Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria sexual mota oro deslegitimatzea.
- Sexu-abusuak gertatu, denboran luzatu eta ez ikusarazteko aukerak sortu zituzten faktore sozial, politiko eta kulturalak ulertzeko bideak ezartzea.
- Biktimei geratu zaizkien mota guztietako arrastoei aurre egiteko, akonpainamendurako eta

**7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, relativa a crear una ponencia para realizar un estudio que brinde propuestas para la prevención, verdad y reparación en los casos de abusos sexuales. [11\11\02\01\00570]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

52/2019

"1. El pleno del Parlamento acuerda constituir una ponencia en el plazo de dos meses a partir de la aprobación de esta iniciativa, en el seno de la Comisión de Derechos Humanos e Igualdad, para, a través de los relatos y la verdad de las víctimas de abusos sexuales prescritos en el ámbito judicial, de agentes expertas u otros actores involucrados, elaborar un estudio en el plazo de seis meses, que pueda contribuir a:

- Identificar elementos para la prevención, detección precoz, protección, ofrecer garantías de no repetición y reparación tomando como referencia fundamentalmente las aportaciones de personas expertas y de personas que han sido víctimas de abusos sexuales en la infancia y adolescencia.
- Construcción de verdad, memoria colectiva e histórica sobre una vulneración de derechos humanos que hasta hace tan solo unos años se trataba como un problema puntual del ámbito 'privado'.
- Deslegitimar cualquier tipo de violencia sexual hacia la infancia y adolescencia.
- Comprender los factores sociales, políticos y culturales que pudieron habilitar a que se produjeran, prolongaran e ignorasen los abusos sexuales.
- Explorar vías de acompañamiento y reparación para las víctimas que padecen secuelas de diferente índole





erreparaziorako bideak aztertzea.

- Ponentziak ez ditu inola ere epaituko pertsonak, ez baitagokio legebiltzar bati epaitze-lan hori egiteko eskumena.
2. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jartzeko, ahalik eta lasterren, 124/2018 Legez besteko Proposamena, Legebiltzarrean 2018ko abenduaren 20an onetsia, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriei buruzkoa.
  3. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jartzeko, ahalik eta lasterren, 85/2017 Legez besteko Proposamena, Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeak 2017ko ekainaren 5ean onetsia, haurrenganako eta nerabeenganako indarkeriaren aurkako politiken gainean gomendiodun ebaluazio-txosten bat egiteko ponentzia bat sortzeari buruzkoa.
  4. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aintzat hartzeko Zeuk Esan zerbitzuaren lana eta datuak, eta hedabideei eskatzeko ezen, haurren eta nerabeen eskubideak urratzeari buruzko informazioa ematerakoan, aipa dezatela Zeuk Esan zerbitzua".

y grado.

- En ningún caso la ponencia será un ámbito de enjuiciamiento de personas, ya que no es competencia de un parlamento.
2. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que ponga en marcha a la mayor brevedad posible la Proposición no de Ley aprobada en el Parlamento el 20 de diciembre de 2018, 124/2018, relativa a las violencias sexuales contra la infancia y adolescencia.
  3. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que ponga en marcha a la mayor brevedad posible la Proposición no de Ley aprobada en la Comisión de Derechos Humanos e Igualdad el 5 de junio de 2017, 85/2017, relativa a la creación de una ponencia con el encargo de realizar un informe de evaluación con recomendaciones sobre las políticas contra la violencia hacia niñas, niños y adolescentes.
  4. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a tener en cuenta el trabajo y los datos obtenidos por el servicio Zeuk Esan y a solicitar a los medios de comunicación que, cuando informen sobre quebrantamientos de los derechos de niñas, niños y adolescentes, mencionen el servicio Zeuk Esan".







**8. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, aurrekontu-luzapena eta 2/2019 Legea betetzeari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00580]**

Jatorrizko testua onetsi da.

53/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete ditzala 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren luzapena eta 2/2019 Legea".

**8. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, sobre el cumplimiento de la prórroga presupuestaria y de la Ley 2/2019. [11\11\02\01\00580]**

Aprobado el texto original.

53/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir la prórroga del presupuesto de 2018 y la Ley 2/2019".

